



SAN TELMO ZURE KASA

HAURRENTZAKO ETA FAMILIENTZAKO JARDUERA

GORPUTZ KORAPILOAK

Gorputzaren bitartez museoa ezagutuz

ZER DA?

Gorputzak munduarekin lotzen gaitu eta uste baino informazio gehiago ematen digu, memoria eta emozioak ditu eta, askotan, hitzek baino gehiago komunikatzen du. Arreta gutxi jartzen badiogu ere, ikasteko, gure ingurunea ezagutzeko eta emozioak adierazteko bitarteko boteretsua da.

Ibilbide honetan gure gorputza izango da protagonista nagusia. Museoa, eraikina, bere artelanak eta kontatzen dizkigun istorioak beste modu batean ezagutzeko eta gozatzeko aukera.

IBILBIDEA

Hasi aurretik, geure gorputzaz jabetzen saiatzeko ariketa bat egingo dugu. Isil-isilik inguruko espazio eta soinuei erreparatuko diegu, sortzen dizkigun sentsazioak edo sentimenduak behatuz. Begiak itxi eta poliki-poliki entzuten eta sentitzen duzunaren arabera mugitu zaitez.

Museoko hainbat lekutan mugimendu-ariketa proposatuko dizuegu, espazioarekin eta obrekin hitz egiteko modu ezberdin bat izango da. Beste hainbat bide egon daiteke, zure gorputza irudimenez erabiltzea besterik ez duzu egin behar.

• Klaustroa

Zenbat neurtzen du? Klaustroa neurtzeko gure gorputza erabiliko dugu, ez dugu bestelakorik izango. Modu ezberdinak erabil ditzakezu, pauso txikiak edo handiak, gorputza zabal-zabalik bueltak emanez, gorputza itxi...

• Eliza

Gu ere koadroa gara. Pertsonaiak arretaz begiratu eta haien jarrerak. Haien antzera jar zaitez eta geldi-geldi egon. Gainontzeko kideek ere gauza bera egingo dute irudi osoa sortu arte.

• Aztarnak oroimenean

Janzkera. Aretoan dagoen kortsea bilatu beharko duzu. Kortsea sorbaldeetatik gerriraino modu estuan estaltzen duen mahukarik gabeko jantzia da, gorputzari naturala ez den forma eta mugimendua ematen diona. Batak bestea besarkatu eta ez utzi mugitzen. Bestea besarkada honetatik ihes egiten saiatuko da. Beste jantzi batzuek ere gure gorputzean eragiten dute. Takoiak, kapelak, poltsak, gorbatak... bat aukeratu eta adieraz ezazu zure gorputzarekin nola eragiten dizun.

• Modernitatea

Badugu zer ospatu. Ospakizunen bat ekar ezazu gogora (gure urtebetetzea, Olentzero, danborra da, jolasean garaile garenean) eta une horretan, oso pozik gaudela, egiten dugun mugimendua eta soinua egin ezazu. Museoan badaude ospakizunarekin lotutako elementuak, kirola, emakumearen botoa. Bilatu eta mugimendu batekin lotu.

Garraibideak. Museoan dauden garraibideak bila itzazu eta birsortu honi lotutako mugimendua. Ibilgailua martxan jartzeko egin beharrekoak egin beharko dituzu, esaterako, autoa ireki, uhala jarri, ispiluak jarri, bolantea erabili.... Badago hau baino zailagoa den ariketa, zure lekutik mugitu gabe ibilgailuaren mugimendua adierazteko gai al zara?

• Industrializazioa

Makina. Makinak erabiltzean gure mugimendua nolakoa izango litzatekeen irudikatzen dugu (telefonoa, plantxa, kutxa gotorra). Mugimenduak egin itzatzu. Makinek mugimendu bereziak egiten dituzte, automatikoak, zurrinak eta errepikakorrak. Honi lotutako dantza mekanikoa asma ezazu, robot bat bazina bezala.

• Arte Ederrak

Gu ere koadroa gara. Pertsonaiak arretaz begiratu eta haien jarrerak. Haien antzera jar zaitez eta geldi-geldi egon. Gainontzeko kideek ere gauza bera egingo dute irudi osoa sortu arte.

Esku-margoa. Koadroaren aurrean zure esku ahurra luzatu, ikutu gabe. Astiro-astiro, kuadroak transmititzen dizuna airean marraz ezazu, energia magnetikoa balego bezala, eskua eta hatzamarren mugimendua erabiliz.

Aulkia. Esther Ferrerren pieza eta bere elementuak arretaz begiratu: aulkia eta haria. Museoan egon beharrean beste leku batean egongo balitz bestelako erabilera bat izango luke, ezta? Me zuren bat duela uste duzu? Zertaz ari ote da? Baliteke denborari buruzkoa izatea, nola adieraziko zenuke ideia hau zure gorputza eta mugimenduaren bidez?

.... ETXEAN ASKOZ GEHIAGO

- **Buztinezko eskultura.** Gure bikotea lokatz pila dela pentsatuko dugu, guk moldatu beharrekoa.
- **Ispiluaren jolasa.** Batek egiten duena besteek errepikatu beharko dute, eta ahal bada, aldiberean.
- **Aulkiaren dantza.** Aulki gainean jesartzeko hamaika modu dago, proba itzazu zenbait. Bigarren ariketan mugimendu ezberdinak kateatzen joango gara, batetik bestera, beti ere aulkiari lotuta eta zutik jarri gabe.
- **Emozioaren estatua.** Musika entzungo dugu, eta transmititzen diguna mugimenduaren bitartez adieraziko dugu. Dantza berezi honi, emozio bat, sentimendu bat egotziko diogu. Sentimendu hori adierazten duen estatua bat bezala amaituko dugu.
- **Imintzioka.** Txarteletan animalien edo objektuen izenak edo marrazkiak jarriko ditugu. Bat aukeratu eta keinuz azaldu beharko duzu, nola mugitzen diren edota nola jokutzen duten adieraziz. Ezin izango duzu hitzik esan ezta zaratarik egin ere. Gainontzekoek zer den asmatu beharko dute.